Lehendakaria / Presidente
**Imanol Zubizarreta Arteche**

Kidea / Vocal
**Mikel Ulazia Etxabe**

Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria
**Nekane Orbegozo Zurutuza**

Resolución 10/2025 ebazpena
Recurso 252/2025 errekurtsoa

HERBECON SYSTEMS SL enpresak (aurrerantzean, HERBECON) kontratazio-arloko errekurtso berezia jarri zuen kontratazio-mahaiak 2025eko uztailaren 29an hartutako erabakiaren aurka. Erabaki haren bidez, kontratazio-mahaiak kontratazio-prozeduratik kanpo utzi zuen enpresaren eskaintza, “Gipuzkoako Foru Kontratazioko Zentralaren bidez ekipo informatikoak hornitzeko esparru-akordioari” dagokiona (25008 esp.). Errekurtso horretan, Kontratu Errekurtsoen Foru Administrazio Auzitegiak, gaur egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu du aho batez:

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la empresa HERBECON SYSTEMS, S.L. (en adelante, HERBECON), contra el acuerdo de la mesa de contratación de 29 de julio de 2025, por el que se excluye su oferta del procedimiento de contratación correspondiente al “Acuerdo marco para el suministro de equipos informáticos a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa” (Exp.25008), el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada en el día de la fecha, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo:

## AURREKARIAK

**LEHENENGOA.-** 2025eko uztailaren 30an sartu zen Auzitegiaren erregistro elektronikoan kontratazioko errekurtso berezia, kontratazio mahaiak emaniko baztertzeko erabakiaren aurkakoa. Lehen aipatu da erabaki hori, eta 252/2025 zenbakiarekin erregistratu zen.

**BIGARRENA.-** Epaimahaiak eginbide bat bidali zion Gobernantzako Departamentuari, errekurtsoaren kopia batekin, eta, espedientea ez ezik, errekurtsoari eta kautelazko neurriari buruzko txostena ere eskatu zion. Hori guztia abuztuaren 12an sartu zen Auzitegiaren erregistroan.

**HIRUGARRENA.-** 2025eko irailaren 1ko Ebazpenaren bidez, epaimahaiak adjudikazio prozedura etetea erabaki zuen, errekurtso berezia ebatzi arte.

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO. -** Con fecha 30 de julio de 2025 tuvo entrada en el registro electrónico del Tribunal el recurso especial en materia de contratación contra el acuerdo de exclusión de la mesa de contratación anteriormente referenciado. El recurso quedó registrado con el número 252/2025.

**SEGUNDO.-** El Tribunal dirigió oficio al Departamento de Gobernanza remitiéndole copia del recurso y reclamándole el expediente y el correspondiente informe acerca del recurso y de la medida cautelar interesada. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 12 de agosto.

**TERCERO.-** Por Resolución, de 1 de septiembre de 2025, el Tribunal acordó suspender el procedimiento de adjudicación hasta que se resuelva el recurso especial.

**LAUGARRENA.-** Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (SPKL) 56.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Auzitegiak helarazi zien errekurtsoa proposamena aurkeztu zuten lizitatzaileei, eta bost egun balioduneko epea eman zien alegazioak aurkezteko. Epea igaro ondotik, lizitatzaileetako batek ere ez du aurkeztu alegaziorik.

**CUARTO.-** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 56.3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (en adelante, LCSP), el Tribunal dio traslado del recurso a los licitadores que presentaron proposición, concediéndoles un plazo de cinco días hábiles para formular alegaciones. Transcurrido el plazo, ninguno de los licitadores ha presentado alegaciones.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**<u>Errekurtsoaren onargarritasuna</u>**

**<u>Admisibilidad del recurso</u>**

**LEHENENGOA.- Xedea.**

Errekurtso hori, kontratazio-mahaiaren erabakiaren aurka jarri da. Erabaki horren bidez, HERBECON enpresaren eskaintza ekipamendu informatikoak hornitzeko esparru-akordio bat adjudikatzeko prozeduratik kanpo utzi zen, zeinen balio zenbatetsia 5.155.568 eurokoa zen.

Beraz, kontratazio arloko errekurtso berezia jar daiteke kontratazio mahaiaren akordioaren aurka, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (SPKL) 44. artikuluaren 1.b) eta 2.b) apartatuetan xedatutakoaren arabera.

**PRIMERO.- Objeto.**

El recurso se interpone contra el acuerdo de la mesa de contratación por el que se excluye la oferta de la empresa HERBECON del procedimiento para la adjudicación de un Acuerdo Marco para el suministro de equipos informáticos cuyo valor estimado asciende a 5.155.568 euros.

Por lo tanto, el acuerdo de la mesa de contratación es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo el apartado 1.b) y 2.b) del artículo 44 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público (LCSP).

**BIGARRENA.- Eskumena.**

Errekurtso horren berri izateko eskumena Auzitegi honi dagokio, irailaren 28ko kontratazio-alorreko errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboa sortu eta arautzeko 24/2010 Foru Dekretuaren 2.1 artikuluan esleitzen baitzaio.

**SEGUNDO.- Competencia.**

La competencia para conocer del recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**HIRUGARRENA.- Epea.**

Errekurtsoa SPKLaren 50.1.c) artikuluan aurreikusitako hamabost egun balioduneko epean jarri da.

**TERCERO.- Plazo.**

El recurso se ha interpuesto dentro del plazo de quince días hábiles previsto en el artículo 50.1.c) LCSP.

**LAUGARRENA.- Legitimazioa.**

**CUARTO.- Legitimación.**

SPKLaren 48. artikuluan xedatutakoaren arabera, HERBECON enpresak legitimazioa du errekurtsoa jartzeko, aurkeztu den lizitaziotik kanpo uztea aurkaratzen baitu.

**Auziaren funtsa:**

**BOSGARRENA.- Errekurritutako jarduera**.
2025ko ekainaren 24ko Akordioaren bidez, Diputatuen Kontseiluak "Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez ekipo informatikoak hornitzeko esparru akordioa" espedientea onetsi zuen, (X25008 esp.), zeinak barnean hartzen baititu, batetik, administrazio klausula partikularren eta, bestetik, preskripzio teknikoen baldintza agiriak. Halaber, adjudikazio prozedura abiaraztea xedatu zuen.

2025ko uztailaren 29ean, kontratazio mahaia elkartu zen dokumentazio administratiboari dagokion artxibo elektronikoa irekitzeko (LEHENENGO artxiboa).

Artxibo hori irekitzeko aktan honako hau jasotzen da: *"2.- HERBECON SYSTEMS SL enpresak 1 zenbakidun artxibo elektronikoan aurkeztu duela 3 zenbakidun artxibo elektronikoan aurkeztu beharreko informazioa, formulak aplikatuz ebaluatu beharreko informazioari dagokiona. Zehazki, lV eranskinean (baliabideak adskribatzeko konpromisoa adieratzeko eredua) aurkeztu ditu kontratuaren - exekuzioari atxikitzeko konpromisoa hartu duten 7 pertsonaren izenak, abizenak eta lanpostuak.*

*Horrek prozeduraren inpartzialtasunari eragiten dion informazioa azaleratzen du, lantaldeko kideen generoari buruzko informazioa ematen duelako, eta, beraz, Kontratazio Mahaiak erabaki du baztertzea HERBECON SYSTEMS SL enpresa Gipuzkoako Foru Kontratazioen Zentralaren bidez ekipo informatikoak hornitzeko esparru akordioa kontratatzeko prozeduratik".*

La empresa HERBECON está legitimada para interponer el recurso de conformidad con lo dispuesto en el artículo 48 LCSP, dado que impugna su exclusión de una licitación a la que ha concurrido.

**Fondo del asunto**

**QUINTO.- La actuación recurrida**.
Mediante Acuerdo de 24 de junio de 2025, el Consejo de Gobierno Foral aprobó el expediente de contratación del "Acuerdo marco para el suministro de equipos informáticos a través de la Central de Contratación de Gipuzkoa" (exp. X25008), que incluye los pliegos de cláusulas administrativas particulares (PCAP) y de prescripciones técnicas (PPT). Asimismo, dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación.

Con fecha 29 de julio de 2024, se reunió la mesa de contratación para proceder a la apertura del archivo electrónico correspondiente a la documentación administrativa (archivo Nº UNO).

En el acta de apertura de dicho archivo se recoge que "*La empresa HERBECON SYSTEMS, S.L. ha presentado en el archivo electrónico no 1 información que debe ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas correspondiente al archivo electrónico no 3. En concreto, ha presentado en el Anexo lV (modelo de declaración de compromiso de adscripción de medios) los nombres y apellidos y puestos de 7 personas que se compromete a adscribir a la ejecución del contrato*

*Este hecho desvela información que afecta a la imparcialidad del procedimiento, por desvelar información relativa al género de los integrantes del equipo de trabajo, por lo que la Mesa de Contratación acuerda excluir a la empresa HERBECON SYSTEMS, S.L' del procedimiento de contratación para la conclusión de un acuerdo marco para el suministro de equipos informáticos a través de la Central de Contratación Foral de Gipuzkoa.".*

Beraz, kontratazio-mahaiak erabaki zuen HERBECON enpresak aurkeztutako eskaintza baztertzea.

Por tanto, la mesa de contratación acordó la exclusión de la oferta presentada por la empresa HERBECON.

LEHENENGO artxiboa irekitzeari buruzko akta argitaratu zen kontratazio plataforman.

El acta de apertura del archivo nº UNO fue publicado en la plataforma de contratación.

**SEIGARRENA.- Esparru akordioan baldintza agirietan ezarritakoa.**

**SEXTO.- Lo establecido en los pliegos del Acuerdo Marco .**

Administrazio klausula partikularren baldintza agiriko ezaugarrien taulako 15. apartatuan, giza baliabideen nahitaezko atxikipena ezartzen zen, eta han adierazten zen zer pertsonak osatu behar zuten gutxienez lantaldea. Zehazki, hauxe jasotzen du:

En el apartado 15 del cuadro de características del PCAP se establecía la adscripción obligatoria de medios personales, indicando las personas que, como mínimo, debían integrar el equipo de trabajo. Concretamente, señala lo siguiente:

*"Egikaritzeari begira, enpresak gutxienez teknikari instalatzaile bat eta teknikari komertzial bat atxiki beharko ditu."*

*"La empresa deberá adscribir de cara a la ejecución al menos un técnico instalador y un técnico-comercial."*

Konpromiso hori LEHENENGO artxibo elektronikoan aurkeztu behar zen, administrazio klausula partikularren baldintza agiriaren IV. eranskinean agertzen den eredua betez. Eredu horrek adierazpen hau jasotzen du:

Dicho compromiso debía presentarse en el archivo electrónico nº UNO cumplimentando el modelo que figura en el Anexo IV del PCAP, que contiene la siguiente declaración:

***"ADIERAZTEN DU***

*Konpromisoa hartzen duela kontratua egikaritzeko behar diren bitarteko hauek atxikitzeko:*

- ***Giza baliabideak atxikitzeko konpromisoa:***

  *Egikaritzeari begira, enpresak gutxienez teknikari instalatzaile bat eta teknikari komertzial bat atxiki beharko ditu*

- ***Bitarteko materialak atxikitzeko konpromisoa:"***

***"DECLARA***

*Que se compromete a adscribir los siguientes medios para la ejecución del contrato referenciado:*

- ***Compromiso de adscripción de medios personales**:*

  *La empresa deberá adscribir de cara a la ejecución al menos un técnico instalador y un técnico-comercial.*

- ***Compromiso de adscripción de medios materiales:"***

Bestalde, automatikoki ebalua daitezkeen esleipen irizpideei dagokienez, Administrazio klausula partikularren baldintza agiriko ezaugarrien taulako 18.2.2 atalak hau ezartzen zuen:

Por otro lado, respecto a los criterios de adjudicación evaluables de forma automática, el apartado 18.2.2 del cuadro de características del PCAP establece lo siguiente:

***"4.- Berdintasun-irizpidea: haztapen %5***

*Lan eremuan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten eskaintzak baloratuko dira, akordio-markoaren exekuziorako proposatutako lan-talde teknikoan emakumeak sartuz. Horrela, tradizioz maskulinizatuta egon den sektore batean emakumeek duten ordezkaritza eskasa murrizten lagunduko da.*

*Kontratuari atxikitako talde teknikoan sartutako emakume bakoitzeko %1,25 emango da, gehienez %5 lortu arte."*

Hau da irizpide horri loturik IX. eranskinean bete beharreko apartatua:

*-Ezaugarrien taulako 19. ataleko 4. irizpidea: Berdintasun-irizpidea.*

*Markatu, dagokionaren arabera:*

*Adierazi X batekin, baldin eta enpresak esparru akordioari atxikitako talde teknikoan gutxienez emakume bat badu.*

*SI* ☐ *NO* ☐

*Irizpide hori baloratzeko, beharrezkoa izango da enpresa lizitatzaileek atxikitako emakumeen curriculum vitaea sartzea 3. artxibo elektronikoan, honako hauek zehaztuta: lanpostua, prestakuntza akademikoa eta lan-esperientzia."*

Administrazio klausula partikularren baldintza agiriko ezaugarrien taulako 18.1 apartatuak modu nabarmenean honako hau adierazten du: *"**Baldintza teknikoak betetzen ez dituzten eta LEHENENGO edo BIGARREN artxibo elektronikoan formula bidez balioztatu beharreko dokumentazioa (HIRUGARREN artxibo elektronikoa) sartzen duten lizitatzaileak lizitazio prozeduratik at utziko dira**"*.

Era berean, 18. apartatu horrek berak ezartzen ditu eskaintzaren esparruan aurkezten diren idazkietarako nahitaez bete behar diren irizpideak –formalak zein materialak–. Atal horren barruan, lizitatzaileek BI eta HIRU artxiboetan sartu behar duten dokumentazioa azaltzen da. Horrela, BIGARREN artxiboari dagokionez, memoria bat aurkeztea aurreikusten da, honako ohartarazpen honekin: "*Kanpoan geratuko dira dokumentazio teknikoan atxikitako langileen generoa*

***"4.- Criterio de igualdad: Ponderación 5 %***

*Se valorarán las ofertas que promuevan la igualdad entre mujeres y hombres en el ámbito laboral, mediante la adscripción de mujeres al equipo técnico propuesto para la ejecución del acuerdo marco, contribuyendo así a reducir la infrarrepresentación femenina en un sector tradicionalmente masculinizado.*

*Se otorgará un 1,25 % por cada mujer incluida en el equipo técnico adscrito al contrato, hasta un máximo del 5 %."*

El apartado relativo a dicho criterio que debía cumplimentarse en el Anexo IX es el siguiente:

*"- Criterio 4 del apartado 19 del cuadro de características: Igualdad entre mujeres y hombres.*

*Marcar según proceda:*

*Señalar con una X en el caso de que la empresa disponga de al menos una mujer en el equipo técnico adscrito al acuerdo marco*

*SI* ☐ *NO* ☐

*Para la valoración de este criterio será necesario que las empresas licitadoras incluyan en el archivo electrónico nº TRES el Curriculum Vitae de mujeres adscritas al acuerdo marco especificando: puesto, formación académica y experiencia laboral"*

El apartado 18.1 del cuadro de características del PCAP señala enfatizadamente que "***"Se excluirá del procedimiento de licitación a aquellas licitadoras que no cumplan las condiciones técnicas exigidas y las que incorporen en los archivos electrónicos nº UNO y DOS documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas (archivo electrónico nº TRES)".*** *"*

Asimismo, este mismo apartado 18 establece los criterios –tanto formales como materiales- de obligado cumplimiento para los escritos que se presenten en el marco de la oferta. Dentro de este apartado, se expone la documentación que los licitadores deben incluir en los archivos DOS y TRES, de tal forma que, en relación con el archivo nº DOS, se contempla la presentación de una memoria con la advertencia expresa de que "*Quedarán excluidas aquellas ofertas que incluyan en*

*identifikatzeko datuak jasotzen dituzten eskaintzak, alderdi hori prozeduraren beste atal batean formulen bidez soilik baloratzen baita*".

*la documentación técnica datos que permitan identificar el género del personal adscrito, al tratarse de un aspecto cuya valoración se realiza exclusivamente mediante fórmulas en otro apartado del procedimiento*".

**ZAZPIGARRENA.- Errekurtsogileak IV. eranskinaren arabera aurkeztutako adierazpena.**

Errekurtsogileak IV. eranskina aurkeztu zuen, giza baliabideen atxikipenari buruzko eduki honekin:

**SÉPTIMO.- La declaración presentada por la recurrente conforme al Anexo IV.**

La recurrente presentó el Anexo IV con el siguiente contenido en relación con la adscripción de medios personales:

"Compromiso de adscripción de medios personales:

DIRECTOR TECNICO

[redacted]
Perito Judicial Forense en informática (Col. [redacted] C.P.I.T.I.A.)
Ingeniero de Computadores (Univ. Málaga)
Ingeniero Técnico en Informática de Sistemas (Uned)
23 Años de experiencia en trabajos similares

ANALISTAS PROGRAMADORES

[redacted]
Técnico Superior de F. Profesional en Desarrollo de Aplicaciones Informáticas
5 Años de experiencia en trabajos similares

[redacted]
Técnico Superior de F. Profesional en Desarrollo de Aplicaciones Informáticas
4 Años de experiencia en trabajos similares

[redacted]
Técnico Superior de F. Profesional en Desarrollo de Aplicaciones Informáticas
14 Años de experiencia en trabajos similares

TECNICOS HARDWARE

[redacted] (RESPONSABLE TÉCNICO)
Técnico en Sistemas Microinformáticos y Redes

[redacted]
Técnico en Sistemas Microinformáticos y Redes

[redacted]
Técnico en Sistemas Microinformáticos y Redes "

Testuinguru horretan, kontratazio-mahaiak erabaki du HERBECON enpresa baztertzea, uste baitu lantaldeko kideen generoari buruzko informazioa ematen duela, eta prozeduraren inpartzialtasunari eragiten diola.

En este contexto, la mesa de contratación acuerda excluir a la empresa HERBECON al considerar que desvela información relativa al género de los integrantes del equipo de trabajo, afectando a la imparcialidad del procedimiento.

**ZORTZIGARRENA.- Enpresa errekurtsogilearen argudioak.**

Enpresa errekurtsogilearen ustez, *"IV. eranskinean ez dago formula bidez puntuatu daitekeen irizpiderik. Ez da zenbakizko daturik, ehunekorik, puntuaziorik edo ingurumen- edo berdintasun-parametrorik ematen. Haren edukia kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duten giza baliabideak eta baliabide materialak identifikatzera mugatzen da, SPKLren 76.2 artikuluak eskatzen duenaren arabera eta espedientearen eredu ofizialaren arabera".*

Kontratu Errekurtsoen Administrazio Auzitegi Nagusiaren doktrina aipatzen du (675/2019) eta auzitegi autonomikoena (TA_MAD 127/2020). Horietan ezartzen denez, baztertzea bidezkoa da soilik gaizki kokatutako datuak ebaluazio-prozesua objektiboki alda dezakeenean; kasu honetan, ordea, oraindik ez da ireki HIRU zenbakiko artxiboa, eta ez da baloratu berdintasun-irizpidea. Hori dela eta, ondorioztatzen du ez dagoela prozeduraren benetako kutsadurarik.

Bigarrenik, uste du pertsona baten izena ez dela, berez, sexu edo genero jakin bat esleitzea ahalbidetzen duen datu pertsonala. Horretarako, Datuak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoan (4 eta 5) eta 4/2023 Legeak, otsailaren 28koak, trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerakoak eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzekoak, ondorioztatzen du genero-identitatea ezin dela jo edo ondorioztatu interesdunaren berariazko baimenik gabe, eta, halaber, modu murriztailean interpretatu behar dela neutraltasun-itxura duen eta zeharkako diskriminazioa sortzen duen edozein neurri.

**OCTAVO.- Los argumentos de la empresa recurrente.**

La empresa recurrente entiende que *"el Anexo IV no contiene ningún criterio puntuable mediante fórmula. No se consignan datos numéricos, porcentajes, puntuaciones o parámetros ambientales o de igualdad. Su contenido se limita a identificar a los medios personales y materiales que se comprometen para la ejecución del contrato, conforme exige el artículo 76.2 de la LCSP y según el modelo oficial del expediente".*

Alude a la doctrina del Tribunal Administrativo Central de Recursos Contractuales (Res. 675/2019) y de tribunales autonómicos (TA_MAD 127/2020) en la que se establece que la exclusión solo procede cuando el dato mal ubicado puede alterar objetivamente el proceso de evaluación, mientras que en este caso, no se ha abierto aun el archivo nº TRES, ni se ha valorado el criterio de igualdad. Concluye por ello que no existe contaminación efectiva del procedimiento.

En segundo lugar considera que el nombre de una persona no constituye, por sí solo, un dato personal que permita atribuirle un sexo o género concreto. Para ello, se apoya en lo dispuesto en la Ley Orgánica 3/2018 de Protección de Datos y Garantía de los Derechos Digitales (arts. 4 y 5) y la Ley 4/2023 de 28 de febrero, para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI concluyendo que la identidad de género no puede presumirse ni deducirse sin consentimiento expreso de la persona interesada, asi como la necesidad de interpretar restrictivamente cualquier medida que, bajo apariencia de neutralidad, genere discriminación indirecta

Hirugarrenik, alegatzen du SPKLren 149.4 artikuluak prozedura osoan proportzionaltasun-printzipioa aplikatzeko betebeharra ezartzen diola kontratazio-organoari, eta, beraz, akats formalak zuzentzeko modukoak izan behar direla hirugarrenei kalterik eragiten ez dietenean eta tratu-berdintasunari eragiten ez diotenean.

Kasu honetan, uste du "*lehiarako abantailarik ez egoteaz gain, izenak aipatze hutsa ezin dela funtsezko arau-haustetzat hartu. Zalantza egon balitz ere, organoak argitzeko eskatu behar zuen, SPKLko 56.3 artikuluari jarraikiz*".

Laugarrenik, honako hau dio: "*SPKLren interpretazio teleologiko eta sistematiko batek lehia askearen printzipioari lehentasuna ematea eskatzen du (gardentasuna 132. art.) 1) eta kontratazio publikoaren eraginkortasuna. Zehapen automatikoak haztapenik gabe aplikatzea EBJAren doktrinaren aurkakoa da (C-336/12 auzia, Manova), arrazoizkotasuna, helburu legitimoa eta proportzionaltasuna eskatzen baititu*".

Arrazoibidea amaitzeko, honako hau adierazten du: "*inferentzia subjektibo batean oinarritutako bazterketa, prozedurari benetan eragin gabe eta zuzentzeko aukerarik gabe, botere-desbideratzea eta prozedura-gehiegikeria da, 39/2015 Legearen 3.1 artikuluaren eta administrazio onaren printzipioaren aurkakoa*".

**BEDERATZIGARRENA.- Esparru akordioaren kudeatzen duen organoaren jarrera.**
Esparru-akordioa kudeatzen duen organoaren jarrera Gobernantza Departamentuaren Zerbitzu Orokorretako buruaren txostenean adierazten da. Txostenak errekurtsoaren idazkian planteatutako lau oinarri juridikoak kontuan hartzen ditu, ordena berean.

IV. eranskinaren izaerari eta BAT artxiboan duen kokapenari dagokionez, honako hau dio berariaz AKPPren 18.1 atalak: "*prozeduratik kanpo utziko dira 1 zenbakiko edo 2 zenbakiko artxibo elektronikoetan formulak aplikatuz ebaluatu*

En tercer lugar, alega que el artículo 149.4 de la LCSP impone al órgano de contratación el deber de aplicar el principio de proporcionalidad en todo el procedimiento, de tal forma que los errores formales deben ser subsanables cuando no causen perjuicio a terceros ni afecten a la igualdad de trato.

En el presente caso, considera que "*no solo no ha habido ventaja competitiva, sino que la mera mención de nombres no puede considerarse infracción sustancial. Incluso de haber mediado duda, el órgano debería haber requerido aclaración conforme al art. 56.3 LCSP*".

En cuarto lugar, estima que "*una interpretación teleológica y sistemática de la LCSP exige privilegiar el principio de libre concurrencia (art. 132), la transparencia (art. 1) y la eficacia de la contratación pública. Aplicar sanciones automáticas sin ponderación es contrario a la doctrina del TJUE (asunto C-336/12, Manova) que exige razonabilidad, finalidad legítima y proporcionalidad*".

Concluye su razonamiento afirmando que "*la exclusión basada en una inferencia subjetiva, sin afección real al procedimiento y sin posibilidad de subsanación, constituye una desviación de poder y un exceso procedimental contrario al artículo 3.1 de la Ley 39/2015 y al principio de buena administración*".

**NOVENO.- La posición del órgano gestor del acuerdo marco.**
La postura del órgano gestor del acuerdo marco se expresa en el informe de Jefa de Servicios Generales del Departamento de Gobernanza. Su informe atiende en su mismo orden, los cuatro fundamentos jurídicos planteados en el escrito de recurso.

Sobre la naturaleza del Anexo IV y su ubicación en el archivo UNO, señala que "el apartado 18.1 del PCAP establece expresamente que "*se excluirá del procedimiento a aquellas licitadoras que incorporen en los archivos electrónicos n º 1 o n º 2 documentación que deba ser objeto de evaluación mediante la aplicación de fórmulas*".

*beharreko dokumentazioa sartzen duten lizitatzaileak".*
*Espediente honetan, «atxikitako taldean emakumeak egotea»ri buruzko irizpidea 3. artxiboan bakarrik baloratzen da. Taldea osatzen duten pertsonen izen-identifikazioak aukera eman dezake, partzialki behintzat, irizpidea betetzen dela ondorioztatzeko, baldintza-agirietako aurreikuspena eta gutun-azalak irekitzeko sekuentziak eskatzen duen anonimotasun-bermea urratuz.*

*Irizpide horren balorazioak 100etik 1,25 puntu emango lizkioke gehienez, eta prozedura honek ez dakar esleipen zuzenik, baizik eta lau enpresa hautatzea, eskaintza ekonomikoa lehenetsiko duen ondorengo fase baterako. Hala ere, juridikoki garrantzitsuena da baldintza-agiriak egoera hori bazterketa-kausa gisa tipifikatzen duela, benetako eraginaren haztapena kontuan hartu gabe".*

Generoa ondorioztatzeko ezintasun juridikoari dagokionez, honako hau adierazi du*: "Baztertzeko klausularen helburua da, hain zuzen ere, mahaiko edozein kidek irizpidea betetzeari buruzko ideia bat, gutxi gorabehera edo presuntzioz, ebaluazio objektiboa egin aurretik eratu ahal izatea eragoztea. Interpretazioak zorrotza izan behar du lizitatzaileen arteko tratu-berdintasuna babesteko".*

Eskaintzaren proportzionaltasun- eta zuzengarritasun-printzipioari dagokionez, honako hau adierazten du: "*AKPAk arrazoi hori baztertzailetzat ezartzen du, eta horrek eragotzi egiten du ondoren zuzentzea, ez betetzea zuzenean lotuta baitago eskaintza aurkezteko moduari eta ebaluazioan inpartzialtasuna bermatzeari".*

Tratu-berdintasunean benetako kalterik ez egoteari dagokionez, onartzen du datu horrek fase honen azken emaitzan duen eragin praktikoa oso txikia dela, baina uste du *"aplikatu beharreko araudiak eta baldintza-agiriak berak ez dutela aukerarik ematen baztertze-kausaren aplikazioa salbuesteko, aurreikusitakoaz bestelako gutun-azal batean formula bidez ebalua daitekeen irizpide baten informazioa dagoela egiaztatzen denean".*

*En este expediente, el criterio relativo a la "presencia de mujeres en el equipo adscrito" se valora exclusivamente en el archivo n.º 3. La identificación nominal de las personas integrantes del equipo puede permitir inferir, al menos parcialmente, el cumplimiento del criterio, contraviniendo la previsión de los pliegos y la garantía de anonimato que exige la secuencia de apertura de sobres.*

*Si bien es cierto que la valoración de este criterio supondría un máximo de 1,25 puntos sobre 100, y que el presente procedimiento no conlleva adjudicación directa sino la selección de cuatro empresas para una fase posterior en la que primará la oferta económica, lo relevante jurídicamente es que el pliego tipifica esta situación como causa de exclusión, sin contemplar la ponderación de su impacto real".*

Sobre la imposibilidad jurídica de inferir el género, señala que *"la finalidad de la cláusula de exclusión es precisamente impedir que cualquier miembro de la Mesa pueda formarse, incluso de forma aproximada o presuntiva, una idea sobre el cumplimiento del criterio antes de su evaluación objetiva. La interpretación debe ser estricta para preservar la igualdad de trato entre licitadores".*

Sobre el principio de proporcionalidad y subsanabilidad de la oferta, señala que *"el PCAP establece esta causa como excluyente, lo que impide su subsanación posterior al ser un incumplimiento directamente vinculado a la forma de presentación de la oferta y a la garantía de imparcialidad en la evaluación".*

En cuanto a la inexistencia de perjuicio real en la igualdad de trato, reconoce que la incidencia práctica de este dato en el resultado final de la presente fase es muy reducida, pero considera que, *"la normativa aplicable y el propio pliego no permiten exceptuar la aplicación de la causa de exclusión cuando se constata la existencia de información de un criterio evaluable mediante fórmula en un sobre distinto al previsto".*

Ondorioz, errekurtsoa ezestea proposatu du, kontratazio-mahaiak erabakitako bazterketa berretsiz.

Propone, en consecuencia, la desestimación del recurso confirmando la exclusión acordada por la mesa de contratación.

**HAMARGARRENA.- Lege esparrua.**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duenak Espainiako ordenamendu juridikora (aurrerantzean, SPKL), 132.1 artikuluan berariaz aitortzen ditu berdintasunaren, gardentasunaren eta lehia askearen printzipioak kontratazio publikoaren esparruan, honako hau ezartzen baitu: *"Kontratazio-organoek berdintasunez tratatuko dituzte lizitatzaileak eta hautagaiak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo dute."*.

Helburu hori lortzeko, SPKLaren 139.1 artikuluak honako hau ezartzen du: *"Interesdunen proposamenek lizitazioa arautzen duten baldintza-agirien eta dokumentazioaren araberakoak izan beharko dute, eta haiek aurkezteak berekin dakar enpresaburuak klausula edo baldintza guztien edukia baldintzarik gabe onartzea, salbuespenik edo erreserbarik gabe".*

Gainera, 2. apartatuak hau dio: *"Proposamenak isilpekoak izango dira, eta neurriak hartu beharko dira proposamenak ireki arte isilpean gordeko direla bermatzeko".*

Era berean, Legearen 146.2 artikuluak honako hau ezartzen du: *"Nolanahi ere, eskaintzak formulak aplikatu hutsez kuantifika daitezkeen irizpideen arabera ebaluatzeko, lehenbizi, bestelako irizpideen arabera ebaluatuko dira, eta ebaluazio horren berri idatziz jasoko da."*

**DÉCIMO.- Marco legal.**

